

GETXO ANTZOKIA

EAJk GETXORAKO DUEN PROIEKTU ENBLEMATIKOA

**Funtzio anitzeko espazioa, aurreratua eta modernoa,
eta 22 milioi euroko aurrekontua esleitua duena.**

Getxo, 2007KO Maiatzak 4

Getxo Antzokia arte eszenikoetarako eta Musika Eskolarako espazio bihurtuko da, Getxon dauden kultura behar eta ardurari bide emango diena. Kalitatezko azpiegitura hori izango da nazioartean izen ona duen Getxoko kultura eskaintza bikainak behar duena.

Getxo Antzokia da proiektu izarra eta apustu enblematikoa EAJ alderdiaren konpromisoan. Hori dena azpiegitura baten inguruan, kulturarako eta arterako erreferentzia izango dena, bai bere arkitektura berritzaile eta bere estetikagatik, bai bere ezaugarri tekniko eta espazio-nolakotasunengatik. Horretarako, behin 22 milioi euroko esleipena eginda, proiektua onartua eta berretsia dagoela, Imanol Landak konpromiso osagarri bat bereganatu du: Getxo Antzoki berriko erabiltzaile izango diren elkarte eta erakundeek proiektuaren zehaztapen-lanetan eta garapenean parte hartzea.

EAJren konpromisoa Getxo hobea egitea baita, kudeaketa garden eta bikain baten alde eginez. Horretarako ezinbesteko deritzote arte eta kulturako sektore eta organismoekin harremanetan egoteari eta horiek parte hartzeari, beraz, hori lortzeko bide zuzen bat egitea da euren asmoa. Bide horretan Musika Estola ere badago; izan ere, azkenean, Eskolako arduradun eta erabiltzaileek betidanik egin duten eskakizun bat bete ahal izango du: Musika Eskolak Algortan egoitza edukitzea.

Getxoko EAJk arte eszenikoen udalerriko zentro enblematiko egin nahi dute Getxo Antzoki berria eta gaur egun Getxo Antzoki zaharra dagoen leku berean kokatu nahi dute. Gutxi gorabehera, 7000 metro karratutan balio anitzeko espazio bat egongo da eta bertan ia arte eszeniko guztiek edukiko dute euren tokia. Horrela, getxoztarrek lehen mailako eta kalitate handiko eskaintza kulturala edukitzeaz gain, entzunaldietarako areto bat, gelak, biltegiak eta aldagela modernoak -Musika Eskolaren beharretara teknikoki egokituak- ere egongo dira.

GETXO ANTZOKIA: GETXORENTZAKO ANTZOKI BERRIA

AURREKARIAK

80ko hamarkadan, Kultur Etxeak bi ekipamendu bakarretan programatzen zituen arte eszenikoak, horietan baitzuten antzerki edo musika jarduerak egin ahal izateko espazio eszenikoa: Algortako Gran Cinema eta Erromoko Bikain zinema. Espazio horiek erantzuten zieten nolabait garai haietako Getxok zuen eskaintza kulturalaren beharrei, baina zine aretoei eragin zien krisiaren ondorioz, ateak itxi egin behar izan zituzten.

Hiritarrei antzerki jarduerak eskaintzen jarraitu ahal izateko, Gurea zinemarekin behin-behineko akordio bat egin zen, baina areto horrek ez zuen programatutako ekimenetarako beharrezkoa zen azpiegitura. Beraz, Algortako Gran Cinemako jabeekin akordio bat egin zen, eraikin osoa bost urtez -eta hamar urte gehiagorako luzapena-alokatzeko.

Kontratua 1991ko otsailaren 26an sinatu zen eta 1992ko uztailaren 1ean ireki zituen ateak geroztik Getxo Antzokia izena izango zuen aretoak, berrikuntza batzuk egin ondoren: eszenatokia handitu, jarlekuak aldatu eta berogailua jarri, besteak beste.

ARTE ESZENIKOEN EGOERA GETXON GAUR EGUN

Zine programazioa:

Izaera berezia duen programazioa da eta gutxiengoa den ikusle talde bati zuzenduta dago. Udalerriko areto pribatuekin guztiz bateragarria da. Zine eskaintza urritik ekainera garatzen da eta hiru programa ezberdin daude bertan:

- Zine kluba
- Zinema paradisia
- Umeentzako zinea.

Horrez gain, Bilboko Nazioarteko Laburmetrai eta Zine Dokumentalaren lehiaketa dago, Getxoren laguntzarekin egiten baita.

Antzerki programazioa:

Antzerki programazioak bi ardatz nagusi ditu:

Urteko programazioa:merkatuan dagoen eskaintzaren arabera antzerki lanak erakusten dira, eta gainera, umeentzako programazioa.

Getxoko Antzerki Jardunaldiak, bertan unean uneko euskal antzerki lanak onenak programatzen dira.

Horrez gain, programa hauek ere aipatu behar dira:

“Emakumeak bidean” zikloa, eskola antzerkiko jardunaldiak eta helburu hezigarriak dituzten beste programa batzuk, beste erakunde batzuekin batera lankidetzan egiten direnak.

Musika programazioa:

Getxoko musika programazioak oso izen ona du nazioarteko hainbat arlotan eta kalitate bikaina ere bai (Nazioarteko jazz jaialdia, Blues jaialdia, Habanerak ...). Urtean zehar garatzen da baina ez Getxo Antzokia, beste hainbat eszenatokitan baizik, Antzokiak ez baititu baldintza tekniko egokiak.

Gainera, beste diziplina batzuk ere erakusten dira antzokian, esate baterako dantza, euskara jarduerak, bertso saioak etab.

GETXORENTZAKO ANTZOKI BERRIA

Argi dago Getxok antzoki berri bat behar duela, programazioaren beharrak betetzeko, kalitatean aurrera egiteko eta bere eskaintzan jarduera berriak sartzeko, handiagoa izan dadin. Horrek denak Getxoren hobekuntza soziala eta kulturalaren alde egingo du, eta beraz, bere biztanleen alde.

¿Non egongo da? Antzoki berria oraingoa dagoen leku berean egongo da eta datzekion orubea ere hartuko du. Basagoiti etorbidearen eta Obispo Etxeandia kalearen arteko lotunean kokatuko da, Bariko San Nikolas elizaren aurrean, Algortaren erdigunean. Kale bien artean plaza bat egongo da, estali gabekoa, eta bertan azokak, jokoak eta aire zabaleko jarduerak egin ahal izango dira. Bere kokapena erdigunean eta garraio publikoko geltokietatik hurbil egoteagatik, getxoztarrak eta Bilbo Handiko inguruetakoko bisitariak erakarriko ditu.

Eraikin horretan antzoki berriaz gain, Algortan Areetako Musika Eskolak izango duen ordezkari-tza egongo da.

Merkatuan dagoen edozein ikuskizun egin ahal izango da antzokian, eta eszena-arten diziplina guztietakoak: antzerki, dantza, lirika... Era guztietako programazioak hartuko ditu bere gain, eta aukera zabalagoak. Neurri handiagoko eszenatokiak eta gaitasun ekonomikoak edozein ikuskizun erakutsi ahal izateko aukera emango diote antzoki berriari: antzerki jardunaldiak, abesbatza jaialdiak, musika klasikoa, bertsolariak, kongresuak etab.

Musika Eskolaren ordezkari-tzan musika irakaskuntza eskainiko da, gehien bat, eta gainera grabazioak, gelak, kamara kontzertuak emateko aretoak etab.

Antzoki berriaren deskripzioa:

Eraikin nagusia:

- ✓ Areto nagusia: bertan musika **kontzertuak**, kantu kontzertuak, **antzerki** lanak, **balleta**, **zinea** etab... garatuko dira. Baita cultura ekitaldiak, **hitzaldiak** etab. 770 jarleku inguru izango ditu.
- ✓ Areto osagarria: plazaren azpian kokatuta, sotoan. Bertan **zinea**, **hitzaldiak** eta beste **ekitaldi kulturalak** batzuk garatuko dira. 260 jarleku inguru izango ditu.
- ✓ Eraikin nagusiari datxekion eraikin txikia, plazara jotzen duena. Bertan jarduera osagarriak egingo dira: **atondoa**, **jantzitegia**, komunak, gelak, **artxiboak**, **biltegiak**...

Musika Eskolako eraikinean hauexek egongo dira:

- ✓ Entzunaldietarako areto bat. Bertan orkestraren **entseguak**, **kamarako kontzertuak**, entzunaldiak, **grabazioak** etab. gara daitezke. 167 pertsonentzako lekua izango du eta orkestra sartzeko adinako lekua.
- ✓ Zentroaren zuzendaritzarako bulegoa.
- ✓ Gelak
- ✓ Biltegiak eta kamerinoak

Getxoko Euzko Alberdi Jeltzalearentzat proiektu enblematiko eta garrantzitsua da Getxo Antzokia.